

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein negozio motaren ereduaren zentro dira, eta hauek gabe ezin dugu edozein negozio mota aurrera eraman; horregatik, bezero garrantzitsuenak (potentzialak) eta merkatu mota ondo hautatzea funtsezkoa da. Telefonian oinarritutako enpresak izango dira.



Hortaz zerbitzu hau Espainiako VODAFONE eta MOVISTAR baina telefonia enpresa txikiagoei dago zuzenduta (lowy, symio, euskaltel...) Izan ere, denontzat baliagarria izango den zerbitzu nahi dugulako, eta horrelako enpresak abiapuntu bikainak dira, enpresa handiekin ez ginelako emango hasieratik, eta beraz, haziz gero bezero handiagoak lortuz joango ginateke.

Kostatu zaigu, baina, azkenean kontaktatzea lortu dugu. Beraien iritzia jakin nahi genuen beraz galdera hau bota diegu: Prest egongo zinatekete horrelako zerbitzu batean parte hartzeko? eta hauek izan dira erantzunak: "langileak besterik ez direla, eta ondorioz ezin digutela erantzun, ezin baitute erabaki hori hartu. Hala ere, ideia oso ona eta interesgarria dela iruditu zaie, hortaz, ideia honekin zerbitzu lortuko dugula esan digute.

Zabor teknologikoa deritzona hazten ari da, eta hainbat piezen elementu batzuk toxikoak dira. Telefonia enpresek naturarekin, gizarteak ekoiztutako zabor guztiarekin eta bezeroen eskaerekin kontzientzia gutxi dutela ikusi dugu. Hasiera, Espainian emango dugu, ondoren poliki-poliki garatzen joateko asmoz.

Honek ez du esan nahi beste enpresa motei uko egingo diegunik; hau da, ez gara telefonian bakarrik oinarrituko. Beste enpresek ere gure zerbitzuak kontsumitzeko aukera izango baitute. Hala eta guztiz ere, lehen aipatutako baldintza bete beharko dute (Espainiakoak izatea) eta parte hartzean konprometitu beharko dira.

Horrekin batera, ekonomia mota hau Espainian posible dela erakutsi eta natura zaindu nahi dugu. Erdiguneko puntu bat jarri behar dugu nahita

nahiez, hau da, puntu fisiko bat, edota beste modu batera esanda, bulego zentralak.

Gure ustez, Donostian jartzea izango litzateke aukera egokiena, Espainiako hiri ezagun bat eta guretzako gertuena eta eskuragarriena delako.

Hala eta guztiz ere, gure herritik, Urretxu eta Zumarragatik hasiko gara, Uggasa-ren bidez.

Gure ideia aurkeztean, oinarria ondo zehaztuko dugu; hori egindakoa, gure zerbitzuak nahi dituzten galdetuko eta baiezkoa eman ezker, haiekin kontaktuan jarri eta detaile guztiak zehaztuko ditugu, adostasun batera iritsi arte.

Denok gure partetik jarriz gero, gauza asko lortu ditzakegu. Izan ere, egin beharreko lana ez da zerbait pertsonala, enpresa handiei eginiko eskaintza bat baizik, horregatik, enpresen inplikazioa beharrezkoa izango da.

EKOZIR